

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Zerga ordenantzen aldaketa

Udalbatzak, 2020ko azaroaren 19an egindako osoko bilkuran, zerga ordenantza hauen aldaketa erabaki du:

- Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
- Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
- Zerbitzu publikoak ematearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen ordenantza.
- Erabilera publikoko lursailak, irabazteko asmoarekin, mahaiekin, aulkiekin eta osagarriekin okupatzeagatiko tasa arautzen duen ordenantza.

Espedienteak Udalaren Idazkaritzan egongo dira ikusgai hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesa dutenek epe horretan egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erabaki hau behin betikotzat joko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamazioren bat badago, beste erabaki bat hartuko da horren gainean.

Argitara ematen da hau, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoa betez.

Langraiz Oka, 2020ko azaroaren 24a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ANGEL MONTES SÁNCHEZ